

## Hitza oinarri

Los Jeromismosen eta Prado Museoaren ondoan dago Espainiako Errege Akademiaren egoitza nagusia; erakunde horrentzat egina da berariaz, eta hiru mende beteko ditu datorren urtean.



**'Limpia, Fija y da Esplendor'.** 1713. urtean sortu zen Espainiako Errege Akademia (RAE), Villenako markesaren ekimenez. Urtebete geroago, Felipe V.aren Errege-Zedula batek baimena eman zion Akademiari bere estatutuak idatz zitzan eta zenbait pribilegio eta abantaila eman zizkien akademikoei, Errege Etxeko zerbitzariak zituzten berberak, hain zuzen. Sortu zenean, hauxe izan zen RAEren helburua: "Gaztelaniaren hitzak eta adierak finkatzea, ahalik eta zehatzen, dotoreen eta garbien". Eta horixe islatzen du haren armarrian ageri den leloak ere: Limpia, Fija y da Esplendor (Garbi, Finko eta Bikain). Egun, zaintza-lana egiteko zeregina aitortzen dio RAEk bere buruari: "Hiztunen beharrezanetara etengabe egokitzeak Espainiar Hizkuntzari ekar diezazkiokeen aldaketek ez dezaten eten hispaniar eremu guztian daukan oinarritzko batasuna".



**Talentu, lan eta ezagutza handiko letrak.** Akademiko osoak dira RAEren bizkarrezurra. Guztira, 46 dira, zuzendaria barne, eta bakoitzak bere jarlekua dauka, alfabetoko letra larri edo xehe batek izendatzen duena. Margarita Salasi, adibidez, "i" xehea dagokio, eta Mario Vargas Llosari, "L" larria. Akademikoaren kargua bizi guztirako izaten da, eta bat hiltzen denean, hura ordezkatzeko prozesua hasten da: hautagai bakoitza, gutxienez, hiru kide osok aurkeztu behar dute, eta botoen erdiak eta bat gehiago lortu behar ditu bere alde. Akademikoak, bakoitzaren espezialitatearen arabera, batzorde edo talde txikietan biltzen dira; hor daude, esaterako, Hiztegi zientifiko eta teknikoaren lantzen duena, Gramatika, Giza Zientziak, Informazio Linguistikoa, eta abar. Batzorde bakoitzak bere arloari dagozkion lanak egin, eta Osoko Bilkuran aurkezten ditu astero.



### Giro berezian sortutako hitzak.

Ostegunero, 19:30etik 20:30era, Osoko Bilkuran parte hartzen dute akademiko osoek. Ordua baino lehen iristen badira, beharbada prentsa irakurtzeko baliatuko dute tarte hori, kafetxo bat hartzeko edo Pasta Gelan solasean aritzeko. Bilkura Aretoaren atarian, esekitokiak daude, akademiko bakoitzari eskainiak eta antzinasunaren arabera ordenatuak. Martin de Riquer da lehen (antzinkoena), zeina 1965. urtean sartu baitzen akademian. Barrenean, mahai obalatu baten inguruan jarrita daude aulkiak. Aretoak berak oso argi gutxi du, eta, beraz, mahaian biltzen da arreta guztia, kideen aurpegietan eta, batez ere, hitzetan. Espainiar Hizkuntzaren Hiztegia da lan eta bilkura horien guztien emaitza, eta batzordeek eta Osoko Bilkurak ez ezik, badute zeresana Lexikografia Institutuak eta espainiar hizkuntzaren beste hogeita bat akademietako kideek ere; hala nola Kolonbiakoek, Mexikokoek, Filipinetakoek... Hiztegi hori espainiar hizkuntzaren Biblia dela esan daiteke, baina ez dira horretara mugatzen erakundearen argitalpenak: besteak beste, hiztegi espezializatuak eta literatura-lan handien oroitzapenezko edizioak ere argitaratzen ditu.



**Bibliofiloen paradisia.** Beheko solairuan, beste areto bat biltzen dute sabai amaiezinak eta zurak, eta hormetan, RAEk hiru mendeotan eduki dituen zuzendari guztien erretratuak ageri dira. Lehen solairuan, Damaso Alonso-ren eta Rodriguez Moñinoren ondare bikaina dago, Akademiaren esku utzi zituzten bi liburutegi partikular, 60.000 liburukiz osatuak, gutxi gorabehera. Eta zer esan Bileraren Areto handitasunez beteari buruz? Han egiten dira sarrerekitaldiak eta liburuen aurkezpenak, poesiari eta elokuentziari eskainitako beirate koloretsuz inguratuta.



**GEHIAGO JAKITEKO**  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)